

SARRERA

Edertasun harrigarri naturala zazpi mendetako historia garrantzitsu eta ezezagun bati besarkatuta agertzen da Santa Katalina Lorategi Botanikoan (Araba). Oinez iritsi daiteke hamar minututako paseoa burutuz, aparkalekuan kotxea utzita. Lorategi Botanikoan 1.000 espezie inguru topa ditzakegu, tokikoak, Badaia Mendilerro bertakoak zein bost kontinenteetakoak. Milurteko zuhaitzak, landare liluragarriak edo lore bitxiak, urtaro zein egunaren arabera aldakorrak direnak, bisitaldi bakoitza esperientzia bizia bihurtzen dutenak. Neguko gelditasuna, udaberriko bapateko kolore leherketa, udako goren aldia eta udazkeneko tonalitate ezberdinak senti daitezke Lorategian. Badaia Mendilerroko paraje pribilegiatuak Santa Katalina Monasterioko hondarrak ezkutatzen hasi zen, egun ezohiko eskenatoki bihurtu da naturaz disfrutatu ahal izateko.

Santa Katalina Lorategi Botanikoan jardunaldi, kontzertu eta bestelako jarduerak ospatzen dira... Esanguratsuenetarikoa bat Arkiz kultur taldeak eskainitako antzezpena da, 100 bat pertsonen eskainitakoa, gehienak Iruña Okakoak, ekainean Iruña dorretxeko historia gogora ekartzen dute.



ORDUTEGIAK

	Uda Maiatzaren 1etik irailaren 30a bitartean	Negua Urriaren 1etik apirilaren 30era
Asteartetik ostiralera	10.00etatik 14.00etara	10.00etatik 14.00etara
Larunbata, igandea eta jai egunak	11.00etatik 20.00etara	10.00etatik 18.00etara
Astelehenetan itxita		
Abenduaren 24, 25 eta 31an eta urtarrilaren 1, 5 eta 6an itxita		

Lorategi Botanikoa Tresponden kokatuta dago, Iruña Okan, Añanako Koadrilan, Langraiz Okatik 5 km.-tara eta Gasteiztik 8 km.-tara.

- 1 Leihatila
- 2 Erakusketa
- 3 Komunak
- 4 Koniferak
- 5 Rosazeak
- 6 Hondamenak
- 7 Uhaskak
- 8 Arboretum
- 9 Berotegia
- 10 Baratza
- 11 Olibondoa
- 12 Kaktus
- 13 Usaintsuak



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

EUSKADI...made in



Santa Katalina Lorategi Botanikoa
Interpretazio Zentroa
01191 Tresponde (Araba)
Telf. 680 47 01 46
airuna.valentina@ayto.alava.net



BADAJAZKO
SANTA KATALINA
DE BADAIA

SANTA KATALINA
LORATEGI BOTANIKOA

añana
turismo

INTERPRETAZIO ZENTROA

Interpretazio Zentroak ongietorria ematen dio Santa Katalina Lorategi Botanikoari, santu honen omenez egindako komentuaren hondarren inguruan eraikitakoa. Bertan indusketen ondorioz topatutako objektuen erakusketa, azalpen arkeologikoak eta gunerezi hau hobeto ulertu ahal izateko lorategi elementu botanikoak topa daitezke.



GUNEAK

Lorategi Botanikoa, 4 hektareako hedadurarekin, orografiak ahalbidetzen dituen ezaugarri klimatikoaren arabera hiru zonaldeetan banatzen da, izan ere lurra ez da homogenea eta bailara hondoan, gunerezi oso babestuan kokatuta dago.

1. Bailara hondo

UR IBILGUA

Igebelarrak, algak, ihiak, lezka hostoestuak eta ostargi-belarrak Lorategiko erdigunean jasotako uretan elkarrekin bizi dira eta haltzak, zumarrak, urkiak eta sahatsak ur-bazterretan irauten dute.

PLAZA

Arrosak, marrubiak, sagarrondoak, gerezioondoak, usareondoak, elorri beltzak, elorri zuria, arbendolodoak... erdiguneko plaza txiki honetan topa daitezke.

MONASTERIO HONDARRAK

Eliza, koru eta klaustrotik barrena ibili daiteke murrutegian loratzen diren espezie finenak behatzeko; olibondo, kamelia, hortentsia, peonia, errododendroa, magnolia... eta baita Lurran duela 300 milioi urte zeuden zuhaitz iratzak ere. Urtetan zehar huntzak sortutako bilbadura handiak garai bateko komentu honen harriak sostengatzen ditu.

2. Unbria

Klima atlantiarreko zonalde honetan haltzak, urkiak, pago lizarrak, gaztainondoak, ezkiak, intxaurreondoak, lizarrak eta astigarrak finkaturik daude. Gunerezi ilun eta hotz honetan gorostiak, intsusak, goroldioa eta likena ere topa daiteke.

3. Egutera

Zonalde honetan eguzkiak egun osoan zehar jotzen du. Beroak argentinarrak jatorriko kaktusak, kanariar landareak, australiar lurraldetako eukalipto eta mimosa eta mediterranearen klimako arte, abaritzak eta algarroboak elikatzen ditu.

- Duela zenbait urte agustindarrak fraideek gunerezi hau mahatsondoak, sendabelarrak, izpilikua... landatzeko erabili zuten.
- Egutera tokiko artadi garrantzitsu bat mantentzen da.
- Landareez gain, zonalde honetan bideetan zehar animalia irudi ezberdinak topatuko ditugu.

SANTA KATALINA MONASTERIOA

Iruñatarrak, Arabako sendi nagusietakoa, Otxanda Andraren dorretxean euren bizilekua kokatu baino lehen bertan bizi izan ziren. Ondoren jabetza dohaintzan eman zioten jeronimotar fraideei eta hauek alde egin behar izan zuten desamortizazioak izan zirela eta. Lehen guda karlistan komentua su hartu zuen, horregatik gaur egun lurreratzeotan dago.

2003an bere ateak berriro ere ireki zituen bertan Santa Katalina Lorategi Botanikoari aterpe eman ahal izateko, gaur egun edertasun handiko elementu arkitektonikoak topa daitezke bertan **ur-tanga** edo kareharrizko putzuak; **jauregi** hondarrak arku zorrotzeko lehiatekin, zuloa eta korura sarrera, **dorrea** non oraindik orain gezilehio eta kanoi-zuloak ikus daitezken; **zuloa**, **igarobidea**, agustinotarrek mahatsondoak landatzeko eraikitako **terrazak** eta ortua; **klaustroa** eta **eliza**. Eskailera kiribildun batek **behatoki** bateraino eramaten zaitu, bertatik Badaia Mendilerroa eta Arabar Lautada parajeak antzeman daitezke.

Natura gustuko baduzu "Santa Katalina Lorategi Botanikoko Lagun Elkarte" bazkide egin zaitezke lorategia babestu eta indartu ahal izateko, kultur ondarearen aberastasuna mantendu eta naturarekiko errespetua hareagotzeko. Urteko kuota: 8 euro.

